



Susara al dago?

Beren behiak susara dauden jakin nahi duten EEBBetako baserritarrek nahikoa izango dute partxe berezi bat behien isatsan itsastea. Partxe horrek sentso piezoelektriko bat eta 400 m-ko irispidea duen irrati-emisore bat daramatza. Baserritarrek behia susara dagoenentz taldeko besteek estali nahi dutelako jakiten dute. Behi batek bestengandiko arreta berezia duenean, sentso piezoelektrikoak detektatzen du eta irrati-seinale bat igortzen du. Behiak 10-12 ordu hilean baino ez dira susara egoten. Partxea oso lagungarria gertatuko zaie baserritarrei, behia artifizialki noiz ernaldu behar duten adieraziko baitie.

Isileko krisia

Isilean zabaltzen delako eta epe motzean herrialde osoko oreka ekologikoa hankaz gora jar deza keelako dio TERI izeneko ikerketa-zentroak lurzorua degradazioa dela India mehatxupean duen isileko krisia. Higadura eta mantenugaien murrizketa dira Indiako lurzorua emankortasuna arriskuan jarri duten faktoreak; ez da ahaztu

Arbibokoa



Indiako lurzorua degradazioak arazo larriak sortu ditu jadanik lurralde honetan. Nekazaritza-eredu okerrek eta baso-soiltzeak eragin omen dute gaur egungo egoera. Konponbidea ez da zaila, baina berandu baino lehen heldu behar zaio zezenerari.

behar, bestalde, lurzorua gaitasunean oinarritzen dela herritarren iraupena bera ere. Indiak duela 50 urte eskuratu zuen independentzia. Hori dela eta, TERI izeneko erakundeak Indiako ingurugiro-arazoei buruzko txostena eman du argitara. TERIko teknikariek diotenez, gaur egungo arazorik garrantzitsuena lurzorua degradazioa da. Batere neurrik gabe nagusitu den nekazaritza intentsiboa, nekazaritza-teknikak batere berritu ez izanak edota industri eremu berriak sortzeko eta populazioaren hazkundera irtenbidea emateko bultzatu den baso-soiltzea dira, beste batzuen artean, TERIren txostenean aipatzen diren arazoak. Arazoa, alabaina, ez da oraindik atzerazinezko puntura iritsi; teknikariek diotenez, lurzorua degradazioa zerk sortzen duen

jakina da eta, beraz, arazo horiei konponbidea jartzea besterik ez da falta. Egitekotan, ordea, oraintxe egin beharko dela ohartu dute: milioika biztanlearen etorkizuna jokoan dago eta.

Udako pozoitzaileak

Aurtengo udako sargoriak ez ditu oraindik bere ondorio guztiak erakutsi. Ikertzaileek uste dutenez, urtea amaitu baino lehen granjetako animaliek eragindako pozoidura-kasu asko gertatuko da Erresuma Batuan, ia denak eguraldi beroarekin lotuta. Landetxetako eta granjetako garbitasun-baldintzak ikertzen diharduen taldeak egoera benetan kezagarria dela jakinarazi dio Osasun Publikoko Labora-

tegiari. Igorritako txostenean irakur daitekeenez, granjetako garbitasun-egoera txarra dela medio, anitz bakterioek garatzeko aukera bikaina aurkitzen dute urtero-urtero, udako be-roak berpizten dituelarik. Aurtengo egoera larriagoa da oraindik, batezbesteko tenperatura 5 °C altuagoa izan baita udako hilabeteetan. Begiz jotako datuen arabera, tenperatura gradu bat igotzen denean, pozoitzeko probabilitatea % 7 handiagotzen da; iaz granjetako animaliak jandakoan 83.000 lagun pozoitu ziren Erresuma Batuan eta aurtan, beraz, 30.000 kasu berri espero dira. Pozoidurarik ohizkoenak *Salmonella* eta *Campylobacter* direlakoek eragindakoak dira, kasuen % 80 inguru horiek sortuak direlarik.



Erresuma Batuan ez da giro azken bolada honetan. Behi eroen gaitzaren ondoren, orain pozoitutako oilaskoarena etorri omen zaie. Granjetako garbitasun-baldintza txarrean aurtengo beroa gaineratuta, pozoidura-kasu asko espero dira. Ez xerra, ezta oilasko errea ere...

Arbibokoa

